

Sabin Salaberri musikariaren opera omnia: Metafora une sortzaile

2008ko apirilaren 20an, igandea, Eusko Ikaskuntzaren 2007ko Manuel Lekuona Saria Sabin Salaberri Urzelai arabar musikariari emate ospakizuna izan zen Aramaion. 1983an sortu zuen Eusko Ikaskuntzak sari hau, Euskal Kulturaren pertsona ospetsuenganako ezagutza gisa, halakoen obra osoak interes berezia duenean saritzeko. Aramaioko Kultur Etxeko Aretoa jai egunez jantzi zen Manuel Lekuona saritu berriari, Herriko Seme Kuttunari, Sabini, harrera beroa egiteko; jai egunez jantzia Sabin Salaberriren *opera omnia* Aramaioko herriaren esker ona jasotzeko.



2008. Asier Agirre, Sabin Salaberri, Xabier Agirre eta Xabier Retegi ekitaldiko une batean (Argazkia: El-SEVen Artxiboa).

Arabako Diputatu Nagusia den Xabier Agirrek burutu zuen ekitaldia Asier Agirre Aramaioko Alkatea, Xabier Retegi Eusko Ikaskuntzako Lehendakaria, Sabin Salaberri saritua bera, eta Josemari Velez de Mendizabal Eusko Ikaskuntzako Zuzendari Kudeatzailea eta omenduaren biografiaren egilea izan zituelarik mahaiburu-kide.

Xabier Agirrek zabaldu zuen ekitaldia hitza hartuz. Gertutasunez aurkeztu zuen Sabin Salaberriren irudia omenduak zuzentzen zuen Araba Abesbatzan

sartzeko azterketa gogoratuz besteak beste: “Sartzeko hautapropa egin nuen eta esan zidan bigarren tenore nintzela.” Asier Agirre Aramaioko alkateak, bere aldetik, Aramaioarren harrotasuna adierazi zuen “Euskal Herriaren kultura hainbeste aberastu duen seme kuttuna” aurkeztean.



2008. Omendua sariaren ikurrarekin (Argazkia: El-SEVen Artxiboa).

“Saritua dira sariari garrantzia ematen diotenak, eta gaur Manuel Lekuona Saria indarturik geratu da”, hitz hauekin eman zion hasiera Xabier Retegi Eusko Ikaskuntzako Lehendakariak bere mintzaldiari, aurrerago, Salaberriren jardueran euskara, “gure kulturaren ezaugarria”, ardatz nagusia izan dela nabarmenduz.

Bestalde, Josemari Velez de Mendizabalek, Sabin Salaberriren biografoa, sarituaren bizi jarduera eta ibilbidearen laburpena egin zuen. Esan beharra dago, ekitaldira etorritako pertsonen biografiaren ale

bana jaso zutela, ale bakoitzak bere baitan zeramala proiektatu zen Eusko Ikaskuntzak Euskomedia Fundazioaren bidez ekoizturiko sarituari buruzko ikus-entzunezkoa.

Momentu gorena heldu zen Sabin Salaberri sari ikurra jaso zuenean. Mahaiburuan nabarmentzen zen Remigio Mendiburu artistak onduriko brontzezko eskultura, ekitaldiko lekuko isila, bizidun bihurtu zen Arabako Diputatu Nagusiak Sabin Salaberriren eskuetan jarri zuenean. Sabin Salaberriren hitzekin momentu hau indartu egin zen emozioak gailentzen zirelarik.

Eskerrona, adiskidetasuna eta ohorea hitzak izan ziren bere diskurtsoaren lokarriak hasiera-hasieratik:

Diputatu Nagusi Jauna, Aramaioko Alkate Jauna, Eusko Ikaskuntzako Lehendakari eta bazkideok, nire familia, adiskide, Aramaioko herritarrok, Erakundeetako ordezkariak,

riak, lagunak, jaun andreak. Eskerrik asko. Beste hitzik ez datorkit ezpainera... Ohore handia da saria jaso duten izen bikainen zerrendan agertzea. Besteak beste, arabarrak bakarrik aipatuz, Odon de Apraiz, Gerardo López de Gereñu, Micaela Portilla eta Armando Llanos-en izenen ondoan norberarena ikusteak ikaraz eta harrirtuta sentiarazten ditu hezur eta mamiak (hau esaterakoan bertan zegoen Armando Llanosi zuzendu zion begirada bere berotasuna jasoz).

Bere esker ona nabarmena Aramaioko herriari eskaini zion eta “bereziki Bizente Goikoetxea abesbatzari, errotze eta emozio erreferentzia izanagatik”. Aurten berrogei urte betetzen duen Araba abesbatza ere gogoan izan zuen: “beti aurkitu dut giza kalitatea, adiskidetasuna eta proiektu, ilusioak eta konpromisoak betetzeko ezinbesteko laguntza.” Bukatzeko, Remigio Mendibururen eskulturaren irudikatzen den Manuel Lekuona Saria bertara hurbildu zirenei eskaintza gisa altxatu zuen.

Bizente Goikoetxea abesbatzak itxi zuen ekitaldia “Agur Jaunak” guztio-kin batera abestuz. Aurretik, Sabin Salaberrik sorturiko errepertorioaren piezak eskaini zituen. Azpimarratzekoa da egun berezi horretarako sortutako abestia, Sabin lagunarentzat abesbatzak zuen oparia honela zioena: “Eusko Ikaskuntzak ematen dizu saria ondo merezia, oparoa izan da zure bizia...”.

Hau guzti hau esanda, egun hartako kronika itxiztat eman genezake. Baina irakurtzen ari garena azaleko gertakizun soila da. Apirilaren 20ko igande hartan Aramaioko Kultur Etxeko Aretoa, jai egunez jantzitako espazioa, *metafora una* bilakatu zen, esanguraz beteriko una.

Zeremonian zehar bi indar biltzaile piztu ziren: afektibitatea eta memoria. Proiektatu zen sarituaren buruzko ikus-entzunezkoan, Aramaioko irudiak lekuko eta partaide zirelarik, Sabin Salaberriren eta bere lagunaren hitzak eta sentimenduak plazaratu ziren, eta Josemari Velez de Mendizabal Salaberriren biografoak sarituaren “bizitzan barrena” abiatu gintuen Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria eskuratzeagatik sarituari argitaratzen zaion bio-bibliografiaren pasarte batzuk irakurriz bertako askoren tokiak, espazioak eta bizi ibilbideak irudikatzen lortuz. Honek guzti honek gizabanakoa eta taldearen arteko harremanak pizteko indarra eragin zuen sentimenduak agerraraziz. Zeremonian oraina eta iragana lotu egin ziren Aramaioko Kultur Etxeko Aretoa metafora bihurtuz.

1. SABIN SALABERRIREN HAURTZAROA: “Aramaioko Pastoral”

Musikari sarituaren jarduera eta bizi ibilbidea ezagutzeko ezinbestekoa da testuinguruan kokatzea; bere etxekoen eta lagunaren artean, bere garaiko Aramaion eta Euskal Herrian, garai hura gidatzen zituzten gizarte ereduetan behinik behin.

Sabin Iñaki Bernarta Salaberri Urzelai, bataio liburuak dioen bezala, 1934ko abuztuaren 20an Aramaion jaio zen, “Luxianorenean” (Patrizio Etxeberriak Aramaion bere garaian izan zuen etxe-ola) hain zuzen ere. Bere gurasoak,



Gurasoak (Argazkia: Artxibo familiarra).

Joxe Salaberri eta Kattalin Urzelai, hamar seme-alaba izan zituzten, gazteena, Sabin, “Sabintxo”.

Joxe “Karnizero” eta Kattalin “Montero” izenordeekin ezagutzen ziren gurasoak. Joxeri bere aitarengandik, Anizeto Salaberri, zetorkion. Aramaioko harakina zen. Amari berriz, beste aitonarengandik, Salasango errotako - Monteroren zerra bilakatu zena - errotaria eta arotza zen Bixenterengandik.

Anizeto Salaberrik mailegu hipotekariorekin eta lur eta etxeen sal erosketarekin egin zituen negozioak, oso gizon zorrotza omen zen eta sendi bizi-moduan agintari oso. Ez zuen begi honez ikusi bere semea Joxe Kattalinekin ezkontzea. Joxe eta Anizetoren arteko harremana guztiz zaildu egin zen eta bikote gazteak etxekoen babesu galdu zuen. Sabinen aitak lan desberdinetan aritu zen bizimoduari aurre egiteko. Ezkonberri Arrasaten harakin, horren ostean Unión Cerrajeran hasi zen lanean “Acha y Compañía”-ren autobus zerbitzua jarri arte eta autobuseko kobratzailea izan arte.

Sabin bi urte betetzear zela gerra piztu zen aitaren ihesaldia derrigortuz Bizkaia, Frantzia eta Bartzelonan zehar. Aramaiora itzultzea lortu zuen, baina gaixorik, ez zen suspertu eta 1941eko otsailaren 21ean hil zen. Sendiaren bizimodua zeharo bestelakotu zen, hainbat euskal etxetan bezala. Eta, hainbat euskal etxetan bezala, ama bilakatu zen guztien sostengu.

Ama izan zuen, beraz, Sabinekin bere haurtzaroaren ardatza. Sabinen hitz hauek jasotzen ditu Josemari Velez de Mendizabalek idatzitako Sabin Salaberriren bio-bibliografian:

Amaz enamoratua nengoen; energia handikoa zen. Gaztetako argazkiek garbi erakusten dute oso polita izan zela eta esan didatenez ezkongai batzuk izan zituen, Aramaion eta Arrasaten. Aitari buruz hitz egiten zuen aldi bakanetan, hartaz maite-minduta egon zela igar zekiokeen.

Aitaren gaineko oroitzapenak amarengandik jasotakoak ditu, amaren memorian baitan gozo eta ondo gordetakoak. Joxe musika zale amorratua omen zen, bere aitarengandik jasotako herentzia bakarra bederen. Bibolina jotzen zuen. Sabinen anaia nagusiek aitarengandik musikaren lehen sekretuak jasotzeko aukera izan zuten, Sabinekin osteraz ez, baina aitaren bibolina jaso zuen oinordetzaz eta oraindik urrezkoa bailitzan gordetzen du, bere musika karreran nolabaiteko eragina izan duela konbentzita.

Anizeto Salaberri bere aitagarreba hiltzean Kattalinekin harremanak ondu ahal izan zituen bere senar zenduaren sendiarekin eta Sabinen aitoren arrea zen izeba Luisaren etxera aldatu zen ama eta seme-alabak babesba lortuz.

Izeba Luisak eragin handia izango zuen haurren heziketan; izan ere, eskolan hasi aurretik Sabinekin bazekien irakurtzen horren eraginez. Frantsesera menderatzeaz gain heziketa zabalekoa baitzuten izeba Luisa eta gainera liburuak, ametsetan murgiltzeko atetxoak, mundua arakatzeko leihotxoak eskuratzeko eta zabaltzeko aukera izan zuten haren esker.

Heziketan hain garrantzitsuak diren eskola maisuak ere gogoan ditu Sabinekin. Joaquin Arana izan zen Sabinen lehen maisua. Don Joaquin Aranak bere etxean zeukan pianoa jotzen uzten zion musika tresna honek eskaintzen duena arakatzeko aukera emanez. Joaquin Aranari Felicísimo eta Eduardo maisuek jarraitu zioten Sabinen formazioan. Azken horri buruz oroitzapen txarra gordetzen du, eta gogoratzen du hura izan zela Sabin izatetik Sabino izatera behartu zuena. Geroago Joaquin Saez de Vicuña maisua agertu zen Aramaiora eta hari esker aldaketa positibo nabaria ezagutu zuela bere heziketan gogoratzen du Sabinekin.

Batez ere matematikak ikasi nituen Don Joaquinekin. Gero arlo askotarako balio izan didan buru eskemetarako abilezia piztu bide zuen maixu hark nigan. Aitortu behar dut Rafa Molina adiskideak fisikako liburuak ekartzen zizkidala Madriletik, eta horietan oinarritu nintzen nire esperientzietako hastapenetan. Rafaren aita iturgina zen eta bere lanetarako kristalak erabiltzen zituen, besteak beste. Rafari esker eskuratu nituen kristalak, ongi neurtuak nik egindako planoen arabera, eta haiekin elektrizitatea lortzeko trikimailua asmatu nuen...

Eta noski, ezin ditugu ahaztu haurtzaroko eta betiko izango diren sentimendu hezitzaileak, sekretu gordetzaileak, misterio aurkitzaileak eta ilusioen partaideak diren maisu eta ikaskideak; lagunak. Antolatzen zituzten “ikastaroen” artean presan bainatzea zen, “Bolintxo”ren ondoko presan hain zuzen ere, eta bertan eskuz harrapatutako karramarroak pote batean egosi eta Añibarriko zubi azpian jatea zen “lizentziatura”.

Sabinen lagunen ahotsa jasotzen da biografian, baita aipatu den ikusentzunezkoan ere. Margolaritzarako eta ipuin kontaketarako zuten grina aipatzen da. Rafa Molinak pasarte hauek ekartzen ditu gogora.

Paleta Bizente Muñoak egin zigun. Sabin eta biok eztabaida ugari izaten genituen... Eta behin, ezbaietan denbora ez galtzeko, margo lana erdi banaz egitea deliberatu genuen. Oso ongi atera zela uste dut, eta obra hura – oihalean eginda – etxean dauka nire seme lñakik.

Bittoren etxe osteko ortuan biltzen ginen, bertako txabolatxo batean, geure ilusio eta ametsei bide emateko.

Bittor Mendialduak Sabini “Doctor Tximista” esaten ziotela gogoratzen du:

Sabin koadrilako adimentsuena zen. Beti zegoen zerbait asmatzen. Doctor Tximista esaten genion. Behin galenazko irrati emisora oso bat prestatu zuen. Eta bere etxetik emititzen zuen. Txirringulak lasterketa bat transmititzera heldu zuen. Artista bat genuen! Elektrizitaterako gaitasuna seminarioan ikasi zuen. Nire gurasoen etxeko instalakuntza berak ipini zuen. Baina ezertan iaio bazen, musika genuen. Primerako konposatzailea zen eta nik sarritan gomendatzen nion musikara dedikatzea, gainerako hobby guztiak utzita.

Anton Polek, berriz, Sabinen alaitasuna azpimarratzen du:

Garaiok Aramaion ez zegoen liburu asko baina Sabinekin edukitzen zituen, eta arratsalde askotan berak irakurritakoa kontatzen zigun, adi-adi egoten ginelarik. Oroitzen dut Daudeten “Tartarin de Tarascon” orduantxe ezagutu nuela, Sabin ahotik, umore zentzu handiz azalduta.

Sabinek, garai hartako ume asko bezala, elizmutil funtzioak burutzen zituen Aramaioko elizan Andres Agirre erretorearen aginduetara. Eta sasoi hartan ohi zenez, batez ere herri txikietan, haur eta gazte askok musika ikasteko aukera elizan izan zuten. Eta Sabinen kasuan hala izan zen, solfeo klaseak Andres Agirrek eman baitzizkion. Bestalde, Fidel Ibargutxi herriko apaiz lagunkideak berriz, pianoaren misterio zuri-beltzak aurkitzeko pistak eskaini zizkion. Ikasgaiak prestatzeko, Garziarena medikuak etxean zeukan pianoaz baliatzen zen. Eta hamabi urterekin elizako organoa jotzen zuen Sabinekin. Eusko Ikaskuntzak ekoizturiko ikus-entzunezkoan une hau gogoratzen du Sabinekin Aramaioko elizako organo aurrean eserita, maitekiro aurkezten du organo hau jotzen hasi aurretik:

Eta gu orduan haurrak ginenean eta hemen abesten genuenean, organo hau genuen laguntzaile. Organo bat gainera bere historia duena, zeren Bixente

Goikoetxeak ere bere eskuak ipini zituen organo honetan, eta guk ere badaukagu ohore hori, organo eder hau jotzeko.

Mutikoa koskortzen ari zen, eta Salaberri – Urzelai familian erabaki batzuk hartu behar izan zituzten. Eta beka bati esker, hamalau urte bete berriak zituela, Laguardiako Apaizgaitegira joan zen ikastera Sabin gaztetxoa lehenik esana zuena betetzera: “Abade noie”.

2. APAIZ BIDEAN: “Punctum contra punctum. Opus 1”

1948. urtean Humanitateetako lehen ikasturtea Laguardiako Victor Tapia Tutore Etxean bete zuen, hurrengo bi urteak Bizkaiko Gaztelu-Elexabeitiako Apaizgaitegian burutu zituelarik.

Barnetegi hertsiko diziplina baten barruan latina zuten gai nagusia. Baina Sabin Salaberrik bere sustraiko gaiari, musikari, heltzeko beta izan zuen, baita praktikan jartzeko ere Artea herriko elizan organoa jotzen baitzuen igandee-tako mezan. Isidro Larrauri zen errektorea eta horrek baimena ematen zion liburutegiko pianoan praktikak egiteko.

Garai honetakoa da Sabin Salaberriren argitaratuko lehen obra, Apaizgaitegiko “Vinculum” zeritzan aldizkarian argitaratu zena hain zuzen ere. Lehen obra hau Isidro Larrauri errektorearen proposamen bati erantzuna emateko sortu zen. Igokunde Ama Birjinaren dogma 1950eko udazkenean aldarrikatu zenean Larraurik poema batzuk eman zizkien pianoko ikasleei musika obraren bat konposa zezaten. Salaberrik bere ahalmena agerian uzteko lehen aukera suposatu zuen honek.

Salaberriren grinako gaia musika izanik bazuen baina bere jardueran beti presente egongo den beste kezka bat, euskara. Eta, bere biografian jasotzen den bezala, Gaztelu-Elexabeitiako Apaizgaitegian bizitu izandakoak aipatze-rakoan kezka hau adierazten du:

Liburutegi ederra genuen eta irakurtzeko zaletasuna han garatu zitzaidan. Baina dena ez zen polita izan; adibidez, irakasleriaren erdia eta irakasle batzuk euskaldunak ginen arren – besteak beste, Manuel Estonba euskaltzalea – han ez zen euskara inondik inora entzuten, ezta aipamenik egiten ere.

Gaztelu-Elexabeitia Apaizgaitegi txikian izandako ibilbidea bukatu eta Gasteizera aldatu zen Sabin 1951-52 ikasturtean.

Garai hartako Apaizgaitegiko bizimodua arautegi espiritualista osokoa omen zen. Salaberriren hitzetan, erregimen itxikoa eta heziketa integralerako ezegokia zeharo. Hala ere, Sabinekin dioenez, bazen halako begirune puntu bat zientzia-fedea binomiorako, Jose Miguel Barandiaranen denboretan ereindako esparruan, bereziki.

Sabinen eskola sasoiko maisuak gogoratu izan ditugun bezala, Apaizgaitegiko ikasketen hastapen haietatik Sabinekin gogora ekartzen duen

izen bat aipatuko da, Pablo Bilbao Aristegi irakaslearena. Bilbaorekin, gogokoak zituen literatura eta musika “*sakonki gozatzen*” hasi zen, ez zuen inoiz ahaztuko Bilbao maisua.

Musika arloan aurrera pausu handiak eman zituen Sabineek hasieratik. 1953ko maiatzaren 26an Pianoko Akademiaren ikasleek kontzertu bat eskaini zuten. Ikaskideak Benjamin Mendialdua aramaioarra eta Javier Bengoa zituen Sabineek, eta Haydn, Mozart eta Rachmaninoff “lagun berriekin” batera, eskaini zuten kontzertua.

Josemari Velez de Mendizabal biografoak jasotzen dituen Salaberriren hitzetan apaizgaitegiko ikasketetan musikaren garrantzia nolakoa zen nabarmentzen da, baita gaur egungo musika hezkuntza eredia zalantzan jartzen dituzten hitzak ere:

Apaizgaitegian musika ez zen txantxetako gaia, garrantzi handia ematen zion materia baizik... Ez nago ados, inolaz ere, oinarrizko hezkuntza sisteman egun eskaintzen den musika instrukzioarekin. Ikaslea askoz gehiago motibatua beharko litzateke, musika ulertzen eta maitatzen lagundu beharko litzaioke, eta alde horretatik, herri musikaren balioa deskubriarazi.

Eguberriko jaietan eta udako oporretan bakarrik etxeratzen zen. Oporraldi tarte haietan “sentimendu hezitzaileak”, “sekretu gordetzaileak”, “misterio aurkitzaileak” eta “ilusioen partaideak” izango ditu Sabineek “maisua”.

“Irakasle” taldea handitzen doa, Aramaioko lagunei herriko apaizgaiak gehitzen zaie, eta noski, “irakasgaien” artean musika egon behar tartean; hori bai, musikaren tratamendua beste ikuspegi batetik landuko da. Aramaioko “Poliko” tabernako bezeroak dantzan eta kantuan jarriko ditu Sabineek, soinu-jole amorratua bihurtuz, hauspoari eraginez. Honen inguruan anekdota oso esanguratsua -eta dibertigarria- aipatzen du Salaberriren biografoak; protagonistak, Andres Agirre Aramaioko erretorea, Sabin eta apaizgaiak, igande arratsaldeak eta “inpernuko hauspoa”.

Aipatzekoak dira ere Aramaioko Doña Angela eta Doña Elviraren etxeko pianoan lagunentzat eta Garziarena barojiar medikuarentzat Sabineek eskaintzen zituen kontzertuak. Josemari Velez de Mendizabalek Rafa Molinaren hitz hauek jasotzen ditu: “Esne eta pastak ateratzen zizkiguten bi emakume gogoangarri haiek emanaldi haien ostean.”

Gasteizko Apaizgaitegiko lehen bi urteak gaudituta, Filosofiako ikasketei ekin zion. Eskolastiko Tomista bere erakuspenetan baina Kant eta Hegel bezalakoak ahazten ez zituen Urbano Gil Ortega irakaslea gogoratuko du Salaberrik. Baita Gizarte Filosofiako oinarriak erakutsi zizkien Gregorio Rodriguez de Yurre soziologoa ere. Eta noski, Joxe Manzana irakaslea, beranduago Salaberriren lagun mina izango zena.

1956-57 ikasturtean Teologiako ikasketetan murgildu zen Sabin. Goi mailako irakasleen artean lau aipatzen ditu Salaberrik. Jose Maria Zirarda, Angel



1969. Araba abesbatza (Argazkia: Artxibo familiarra).

Sukia, Luis Maria Larrea eta Jose Mari Setien. Guztiontzat hitzak ditu eta ez dira gozoak denentzat. Jose Maria Zirarda buruz bekoki zabalekoa, irakasle ona, hizlari bikaina eta optimista izaerako irakaslea zela esango du; Angel Sukia tradizionalista hutsa, moralista hertsia eta goi helburuei begira lan egiten zuen pertsona bezala definituko du; Luis Maria Larrea, berriz, gizon bitxia bezala deskribatzen du, printzipio moraletan zorrotza zena eta horien aplikapenean liberal samar jokatzeko omen zuena; Jose Maria Setien irakasle bikaintzat joko du eta – Sabinen iritziz – puntu bat kontserbadorea bere ikasgaietan, “batez ere, gero bere ibilbidean erakutsi duenerako”.

Setienek Salaberriri zuzentzen dizkion hitz hauek jasotzen dira biografian:

Oso ikasle ona izan zen Sabin. Zentratua bere ikasgaietan, bat bateko adimena zuen, argia. Beharbada, akatsen bat aurkitzearen, “gerri” gutxikoa zela esango nuke, zuzenegia. Urte batzuk geroago bizi izan zuen krisia da horren lekuko, izan ere Sukia beharrean bere nagusi Larrea edo Zirarda eduki izan balu... auskalo zer gertatuko zatekeen. Ene ustez, apaiz on bat galdu zen baina, ziur aski, euskal kulturako gizon handi bat irabazi genuen.

Sabin Salaberriren Filosofia ikasle garai honetan Francisco Peralta izendatu zuten Gasteizko Gotzain berria 1955eko martxoan eta urte bereko ekainean aipatu den Angel Sukia Apaizgaitegiko erretore jarri zen, Ugalde ordezkatzuz. Aldaketa hauek eragin bortitza suposatuko dute Salaberriren ibilbidean.

Beste irakasle batzuk ere baditu Sabinekin gogoan. Andres Ibañez Arana adibidez, Sabinen hitzetan Idazti Deunak ikuspegi historizista batetik erakusten zituenak eta ez, hainbeste, dogmatismotik. Elizaren historia irakaslea zen Jose Zunzunegi ere maitekiro gogoratuko du. Joakin Goikoetxeaundia frantziar eskolako espiritualista da beste bat. Honen inguruan Salaberriren hitz hauek jasotzen dira biografian, beste pasarte batean ere hemen adierazten den sentimendua azalduko da:

Munduari buruzko ikuspegi baikorra zuen, baina desenfokaturia, okerra. Eta ideia haiekin sortu zuten gugan lantegi idiliko, zoriontsu, filantropiko eta esku zabaleko militanteak ginelako sentsazioa. Kristori zuzen-zuzenean zegoen elizaren partaide aktiboak ginela, Espiritu Santuak lagun, eta beti ere bere buruari zintzotasun osoz ari zen elizako langileak, alegia. Utopi burbuila batean sartuta bizi ginen; apaizgaitegiko hornez bestaldean mundua ez zen gurea, bestelakoa genuen...

Eta nola ez, Julio Valdes Goikoetxea irakaslea ere bihotzean gordeta dauka: "Harmoniaz dakidan guztia berarekin ikasi nuen". Gainera, loturak estutu egiten dira, Valdesen ama Aramaioarra baitzen, Vicente Goikoetxea musikariaren arreba.

Garai horretan txistua ikastea erabaki zuen Sabinekin. Ikastearekin konformatu ez, eta bere izaerari jarraiki, pausu bat aurrera emateko behararen eraginez eratu zen lehen txistu banda Apaizgaitegian, irakaslea Gasteizko Udal Bandako zuzendaria, Primitivo Onraita, zelarik.

Pianoa, organoa, txistua eta akordeoia dira Sabinekin erabilitako instrumentuetako batzuk, baina erregea pianoa delarik. Dena dela, bere burua ez du instrumentistatzat hartuko:

Baina ez naiz instrumentista ona izan. Ez naiz kontzertu bat emateko gai inoiz izan. Oso urduri ipintzen nau publikoaren aurrean atera behar dudala pentsatzen soilak. Alde horretatik, gauza bera gertatzen zitzaien nire piano irakasle bikaina izan zen Tomas Etxabarriri.

Musikarako beste dohain bereziak zituen. Araba Abesbatzaren sortzailetariko bat izan zen Manu Sagastumeren iritziz harmoniarako eta zuzendaritzako dohain bereziak zituen Salaberrikin. Harmoniarako dohain hau ere Carmelo Bernaola maisuak goratzen zuen. Konposizioaren zutabeak eraikitzeko dohaina duen musikaria deskribatu eta goretzi egiten dute, alegia.

Teologia 1959-60 ikasturtean amaitu zuen goi mailako kalifikazioak lortuz. Handik zenbait urtetara, 1974-75 eta 1975-76, Historia Patristika adarreko ikasketak burutu zituen, irakasleen artean Jose Ignacio Telletxea Idigoras 2001ean Manuel Lekuona Sariduna ere izango zena nabarmentzen duelarik. Eta lizentziatura prestatu zuen, "Vicente Goicoechea y Errasti, renovador de la música religiosa española" gaiarekin:

Aztertu nahi nuen, euskaldunek erlijioso musikan izandako eragina. Guridi, Zubizarreta, Olaizola, Garbizu... eta abar luze bat dugu ekarpen baliotsua egin dutenak, baina konturatu nintzen egile bakar batekin nahikoa nuela. Eta hori, hain zuzen, herrikide nuen Goikoetxea zen. Beraz horri lotu nintzaion eta oso gustura geratu nintzen emaitzarekin.

Sabin Salaberriren lan sakonaren ondorioz Bizente Goikoetxea musikari arabarraren obren katalogoa handitu zen ordura arte ezagutzen ez ziren obrak aurkitu baitzituen.

3. APAIZTU ETA LANERA: “Punctum contra punctum. Opus 2”

Teologiako ikasketak bukatuta, Jose Maria Zirarda Sevillako Gotzain laguntzaileak burututako ospakizunean apaiztu zen Sabin Salaberri; 1960ko abuztuaren 14a zen. Hurrengo egunean Aramaion eman zuen lehen Meza, sendi eta lagunen artean.

Une haietan zer sentitu zuen jasotzen du Velez de Mendizabal biografoak. Salaberri hemen adierazten duen sentimendua Apaizgaitegian jasotako hezkuntzaz hitz egiten duenean ere azaleratzen da; askatasuna eta filantropia-tik “mundua hobetzeko” utopia.

Inork irudika zezakeen lantegirik hoberenean nengoen. Okerretik libre arituko nintzen eta nire kargu berritik aurrerantzean gizateriari arreta desinteresatuaz begiratuko niolakoan nengoen. Gure buruzagiek onena nahi zuten gu guztiontzat. Horrelakoxea zen, aurrerantzean aurkituko genuen munduari bide zegokion panorama. Gainera, lanean hasteko itxaroten ari zitzaidan, Santa Agedako emakumeen ero etxean, apaiz titularraren oporrak zirela eta ordeztapena egitea eskatu zidaten eta. Amari nire lehen soldata eskaini ahal izan nion. Hura zoramena!

Hilabete eta erdiz Gesalibarren ordezkapen laburra bete ondoren, Gasteizko Apaizgaitegian irakasle izendatu zuten, musika irakasle hain zuzen ere. Horrela, 1960-61 ikasturtean hasiera eman zion bere bizitza profesionalean ardatza izango zenari, hezkuntza.

Musika giroa pizten jarri zituen bere indarrak Salaberri. Eta motel zebilen 1906an sortutako *Schola Cantorum* ospetsua berpiztea izan zen bereziko errorra, eta baita lortu ere, bere zuzendaritzapean abesbatzak gora egin zuen bere ospea berreskuratuz.

Musikaz gain, Nahitaezko (Prezeptiba) Literatura ere irakasten zuen Salaberri, Fisika, Kimika eta Grekoa arloak ere tartekatu behar zituelarik. Angel Sukia erretoregoa utzi zuenean, euskara irakasteko aukera izan zuen. Fisika eta Kimikarekin gustura aritu zen, “Doctor Tximista” bati dagokion maila mantenduz esperimenduekin jarraitu zuen irrati emisora berri bat martxan jarritz. Bere aparailu horretatik Apaizgaitegiko “emisora ofizialetik” Ecuadorreko misiolariekin mantentzen ziren elkarrizketetan sartzea lortu zuen behin.

Euskara, arduratzen zitzaion beste gaia, gogoan zuen eta Apaizgaitegiko elizkizunetan euskarak zuen presentzia murriztua handitzeko pausuak eman

zituena. Lehenik eta behin elizkizunetako euskal abestien erreperatorioa handitzea erabaki zuen, nahiz eta Angel Sukia erretorearen onespina ez izan eta horren kontra pausu ausarta emateko derrigortua izan. Horrela, abesten zen abesti bakarrari, “Agur Jesusen Ama” alegia, Aita Madinaren Abe Mariaren bat eta Aita Donostiaren beste abestiren bat gehitu zituen.

Momentu horretan Vatikanoko II Kontzilioa abiatu gabe zegoen, eta beraz, geroago helduko zen eliz funtzioen antolakuntza aldatzeko irekiera heltzeke zegoen oraindik. Baina baziren mezako mintzaldietan euskaraz egiten ausartzen zirenak, Iñaxio Oñatibia eta Angel Arandia apaiz gipuzkoarrak hilean behin Gasteizko Brigida mojetan egiten zuten meza dugu adibide. Sabinekin gehitu egin zitzaion bikoteari eta parte hartzen zuen euskarazko eukaristian. Sukia eta Peraltak, Salaberri bere apaiz bizitzan gaintitu beharreko betiko horma, debekatu egin zituen Brigiden komentutik agertzea. Baina ezartzen ari zen mugimendua eta bultzada geldi ezina zen eta Brigidetatik Erreparadoreetara heldu ziren mezak. Honez gain, Iñazio Oñatibiak Pastoral eta Liturgiako Zentro bat eratu zuen Erreparadoreetan, bere zuzendaritzapean eliz abesti berriak sortzeko taldea osatu zen eta Sabin Salaberri horren partaide izan zen.

Vatikanoko II Kontzilioak espero zen irekiera ekarri zuen, eta eliz funtzioen antolakuntzan tokiko hizkuntzei aukera eman zitzaion. Euskal Herrian, beste hainbat toki elebidunetan bezala, batzorde bi osatu ziren, bata elizako testuak euskaratzeko, eta bestea testu horientzat musika egokitzeko. Azken talde honetan Sabin Salaberri arabako ordezkaria izan zen.

Schola Cantorum-ekin burutzen ari zen lanari esker Sabinen izena Euskal Herri osoan hasi zen ezagun egiten. Honen ondorio bat 1962an antolatutako Euskal Herriko Otxoteen I Txapelketan epai mahairako deitua izatea izan zen. Francisco Escudero, Tomas Garbizu, Martin Lipuzkoa, Antxon Larrauri, Javier Bello Portu, Juan Arzamendi eta horien gisako musikari profesionalekin elkartzeko aukera eman zion. Salaberriren musika formazioa sakontzeko aspaldiko premia areagotzeko bultzada suposatu zuen honek eta hurrengo pausu bat emateko garaia heldu zitzaiola deiari erantzun zion; musika titulua atera behar zuen.

Peralta Gotzainaren onespina ez, noski, honek biologia ikastea aholkatu baitzion, baina musika titulua ateratzearen aginduari aurre egin zion. Bilboko Goi Kontserbatorioan lortu zuen Pianoko titulua; Solfeoko bost urteak, berriz, Gasteizko Kontserbatorioan azterketa batean gaintitu ondoren, eta, azkenik, 1967ko irailean eskuratu zuen titulua.

1968an jaso zuen eskaera baten esker beste bultzada bat hartu zuen bere formazioa sakontzeko grinak. Zarautzeko “Oleskariak” taldearentzat abesti bat idazteko eskaera jaso zuen Salaberri abesbatza honen zuzendaria zen Imanol Urbietarengandik. “Baserri” bertsolariaren hitzak oinarri, musika jartzea eskatzen zitzaion Sabin Salaberri; Sabinekin “Itsasoan” kanta sortu zuen. Urte hartan Arabako Aurrezki Kutxak antolatzen zuen abesbatza lehiaketara aurkeztea zen helburua, lehiaketa horretan interpretatzaileen eta musika egileen lana saritzen zelarik. “Oleskariak” Abesbatzak Salaberriren “Itsasoan”

kantarekin suertatu zen garaile eta, egileen kasuan, Sanmartin, Aranburu eta Salaberri “ex-aequo” jaso zuten.

Eusko Ikaskuntzak ekoizturiko Salaberriren inguruko ikus-entzunezkoan une horretan gailendu zitzaizkion sentimenduak gogoratzen ditu Sabineke:

Nire abesti bat lehen aldiz Principal Antzokian entzun nuenean, antzokia jendez beteta zegoela. Eta kanta Zarauzko “Oleskaria” koruak abestu zuen, eta txalo zaparrada bat jaso zuen. Hori izan zen niretzat ikaratzeko momentu bat, ikusi nuen nire obra batek horrelako harrera izan zuela.

Errekonozimendu berri horrek zalantza guztiak ezabatu zizkion Sabini eta gorputz eta arimaz ekin zion musikako goi mailako ikasketen karrerari. Horretarako Francisco Escuderoaren eskuetan jarri zen Donostian eta bost urtez aritu zen harmonia, kontrapuntu eta konposizioaren zimendu, zutabe eta habeen arkitektura ezagutzen.

Urte horretan ere eskaera bat jaso zuen Sabineke Apaizgaitegian bere ikaskide edo ikasle ohiak izandako Gasteizko gazte batzuegandik. Gazte hauek sortu berria zuten Abesbatzaren zuzendaria izatea eskaintzen zitzaion. Abesbatzaren zuzendaritza onartuta nortasuna ezarri zion abesbatza berri honen ibilbideari, sasoiko abesbatzen eskema zaharrekin apurto independentzia eta konpromezua izanik espresio ereduak; Sabineke *Ez dok Amairu* aipatzen du sasoiko espresio eredu bezala. Izena Sabineke jarri zion: Araba Abesbatza.

Berrogei urte beranduago bizirik diraun Araba Abesbatzak konposizio berriak izan ditu bere errepertorioan, eta hasiera hasieratik euskara izan da erabili duen hizkuntza. Garaiko zentsurari saihestea lortu zuten Arabako Diputazioan Foru Diputazioaren Kultura Batzordearen Abesbatzatzat hartu zelako. Baina beste oztopo bati ere aurre egin behar izan zioten, izan ere, Sabinen ibilbidean agertzen zen hormak bere adierazpena egin zuen oraingoan ere.

Peralta Gotzainak oharra luzatu zion musikariari Abesbatzaren emanaldiak eta leporatzen zion nabarmentzeko joera uzteko. Sabineke, bere jarduera osoan adierazi duen nortasunarekin bat eginez, aurrera pausu batekin erantzun zion: Araba Abesbatzari falta zitzaion osagarri instrumentala gehitu zion Amets Taldea sortuz. Velez de Mendizabal biografoaren hitzetan “giro euskaldun friboloagoa piztu zen arabar inguruan”.

4. KRISI ERLIJIOSOA ETA BISITZA BERRIA: “Ad Libitum”

Krisi erlijiosoa pizten hasi zen Sabin Salaberriren baitan eta zenbait gertakirik sortzen ari zen itzala handitu zuten.

Gasteizko katedral berriaren inauguratzeko ospakizuna izan zen lehenengo eztanda. Franco jenerala eta gobernuko zenbait ministro, gotzainak eta

Aita Santuaren ordezkaria ekitaldian agertzea espero zen. Peralta Gotzainak Apaizgaitegiko *Schola Cantorum*-en partaidetza eskatu zuen zeremoniak eskatzen zuen handitasuna apaintzeko. Baina Sabinekin ez zuen hortik pasa, Gasteiztik alde egin zuen eta ez zuen Apaizgaitegiko abesbatza zuzendu.

Horrela azaltzen du bizi izan zuen momentu hura:

Niretzat gehiegi zen, Euskal Herria zanpatuta zeukan diktadorearen aurrean aritu behar izatea! Nahiago izan nuen krisia eragitea, jakin bainekien nire jarrera hark ondorioak ekarriko zizkidala. Baina, agian, apurketak argia ekar diezadakeen... Nik uste dut nire barne eraikina sendotu zuela deliberamendu hark eta luzarora osasuntsua gertatu zen...



1985. Luis Aranbururekin (Argazkia: Artxibo familiarra).

Bigarren gertakari batek dagoeneko mintzen hasita zegoen barnea gehiago zulatu zuen. Mendia maite izan du beti Sabinekin eta oporraldietan mendira jotzen zuen beti; Pirinioak eta Alpeak ez dute misteriorik Sabinentzat. Pirinioetako irteera haietako batean, lehen irakasle eta gero kide eta beti adiskide izan zuen Pepe Manzana hil zen mendi istripu batean.

1975ean gaude. Eta barne eztabaida momentuz baretuko duen eskaintza bat jasoko du Sabinekin. Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioko zuzendaria zen Luis Aranbururengandik kontserbatorioko harmonia irakaslea izateko proposamena jaso zuen.

Urtebete geroago martxoaren 3ko Gasteizko gertaerak azkeneko behin-betiko eztanda ekarri zion Sabini. Elizak ez zion behar zuen oreka eskaintzen dagoeneko, eta apaiz izateari uztea erabaki zuen.

Elizarekiko loturetatik aske geratu zen bere sentimenduak honela aldarrikatuz: “Kristau bezala, inor ez gorrotatzeko betebeharra nuela argudiatuz, eta –tamalez- Gotzaina gorrotatzeko arriskuan nengoen”.

Apaiz izateari utzita, irakaskuntza zibilean aurkitu zuen bere bidea. Kontserbatorioko harmonia irakaslea izaten jarraituz gain Olabide Ikastolan hasi zen lanean 1977-78ko ikasturtean. Olabide ikastolan ere musika zuen bere irakasgaia, nahiz eta irakaskuntza orokorreko beste gai batzuk ere eman beharra izan. Ikasturte batzuetan Filosofia eta hizkuntza klasikoak erakutsi



2004. Arabako Nazioarteko Abesbatzen Astea (Argakia: Artxibo familliarra).

zituen batxiler mailan ere. Eta nola ez, barnean daraman “Doctor Tximistak” ere lan egiteko aukera izan zuen elektronika tailerretan.

1981ean Gasteizko Kontserbatorioan zuzendariko plaza konkurtsora atera zuten eta hogeita bi hautagairen artean Carmelo Bernaola eta Sabin Salaberri bera aurkeztu ziren. Bernaolak lortu zuen postua eta berak eskatuta Sabin izendatu zuten zentroko ikasketa buru. Handik hamar urtera, Bernaolak zuzendari kargua utzi zuenean eta irakasle arrunt gisa jarri zenean lanean, Salaberrik bete zituen zuzendari lanak lau urtetan. Kontserbatorioko irakasle garaian Harmonia, Kultura eta Artearen Historia, eta Musikaren Estetika izan zituen irakasgai Sabinekin.

Lan profesionalaren erantzukizunak bukatuta bere ibilbide musikari sakontasuna ezartzen jarraitu zuen. Konposizio sormenarekin jarraituz gain beste proiektu batzuk ere abian jarri zituen. Aipatzekoak dira adibidez 2003an sortutako *Camerata Gasteiz*, Jesus Guridi Kontserbatorioko irakasle, ikasle eta ikasle ohiekin osatutako sokako taldea, eta 1984tik Arabako Nazioarteko Abesbatzen Astea delakoaren izan duen zuzendari artistikoaren ardura.

5. ARAMAION, 2008ko APIRILAREN 20an: “Opera omnia”

Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen eta Eusko Ikaskuntzaren kidea, 1996tik San Fernando Artederretako Akademiaren Kidea, 2006ko “Urrezko Zeledoia” eta Aramaioko Herriko Seme Kuttuna den Sabin Salaberriri Manuel Lekuona Saria 2007an eskaintzean, bizitza guztian euskal kulturari egindako ekarpenagatik, errekonozimendua egin dio Eusko Ikaskuntzak. Emate ekitaldiko zeremoniak errekonozimendu hau handitu egin zuen esangura ueña bilakatuz.

Lagunak, ikasle ohiak, lankide, sendiak, herrikideak, gazteak, haurrak, helduak, nagusiak, ezagunak, ezezagunak, semea, alaba, emaztea, anaiak, arrebak, erakundeen ordezkariak, kideak, baserritar, musikari, etxeokandre... Bildutako guztien bizitzaren kaleidoskopio bilakatu zen Sabin Salaberriren *opera omnia*.

Jose “Karnizero”, Kattalin “Montero”, “Luxianorena”, “Salasango” errota, Unión Cerrajera, Acha y Compañía, “Bolintxoren” ondoko presa, “Añibarriko” zubia, Garziarena medikua, D. Joaquin, Felicísimo eta Eduardo eskola maisuak, gerra, gerra ostea, elizako organoa, Bizente Goikoetxea, “Poliko” taberna... Pertsona ezagunak, bizi izandako garaiak, ibilitako tokiak, afektibitatea eta memoria pizten laguntzen duten harriak alegia.

Aramaiarra izatea baina, ez zen beharrezkoa kaleidoskopio horren zatia izateko. Salaberriren heziketa eta formazioa entzuterakoan banakoaren *punctum contra punctum*, banakoaren kontrapuntu partikularra irudikatzen da. Bakoitzaren Sonata, Suite, Tokata, Sinfonia, Zortziko, Opera, Fantasia... notaz nota - *punctum contra punctum* - eraikitzeo aukera dauka.



2008. Ekitaldiko une bat (Argazkia: El-SEVen Artxiboa).

Eskola maisuak gogora etortzen dira, garai bateko maisu-maistra eta ez gaur egun izendatu nahi dituzten “prestakuntza kudeatzaileak”. Malenkoniaz gogoratzen ditugu “irudimen ikastaroak” eta “jolas dinamizatzaileak” behar ez dituzten umeak.

Bildutako bakoitzak heldutasunean jasotako formazioak eta jarraitutako ibilbideak ekarri duten barne lurrikara edota sosegua aztertzeko beta ere izan zuen. Sabin Salaberriren Teologia eta Filosofia, Fedea eta Arrazoiaren arteko harmonizazioa askoren ariketa harmonikoaren irudikapena bilakatu baitzen.

Hasieran esan den bezala, zeremonian zehar bi indar biltzaile piztu ziren: *afektibitatea* eta *memoria*. Zeremonian oraina eta iragana lotu egin ziren Aramaioko Kultur Etxeko Aretoa *metafora unea* bihurtuz, Sabin Salaberriren *opera omnia* memoria une sortzaile izanik.

BIBLIOGRAFIA

VELEZ DE MENDIZABAL AZKARRAGA, Josemari. *Sabin Salaberri Urzelai. Manuel Lekuona Saria – Premio Manuel Lecuona*, 1. arg., Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2008; 141 or.

Beatriz Akizu Aizpiri